

---

## GURASOEN ESKOLETARAKO GAIEN PROPOSAMEN OROKORRA

---

### LEHEN HEZKUNTZAKO etapan dauden seme-alabak dituzten gurasoei zuzendua

- Nolakoa den 6-12 urte bitarteko haurra, **psikologia ebolutiboa**. Zein diren adinotan gizarte, ezagutza, gorputz... mailako ezaugarriak.
- Toleranteegia ala zorrotzegia naiz? **Arauek eta mugek** familia bizikidetzan duten eginkizuna neurtu. Arauak modurik eraginkorrenean nola ezarri.
- Noraino dira eraginkorrak **sariak eta zigorrak** gure seme-alaben hezkuntzan? Nola saritu eta noiz zigortu nire semea/alaba.
- Nola areagotu gure seme-alaben **autoestima**.
- Nola hobetu familian **komunikazioa**. Zein alderdik laguntzen digute ongien komunikatzen eta zein alderdik zaitzen digute komunikazioa?
- **Agresibitatea**. Nire semea/alaba agresiboezia al da?. Nola bideratu agresibitatea helburu positiboetarantz. Nola jokatu "gainditzen" gaituzten agresibitate egoeren aurrean.
- Nire semea/alaba gauza eskaka ari da beti. Komunikabideek neska-mutilengan duten eragina. Zer egin genezakeen guk **zaparrada kontsumistaren** aurrean.
- Osasunerako hezkuntza. Ohitura osasuntsuak nola sortu.
- **Aisialdirako** hezkuntza. Nola antolatzen dugu aisialdia familian? Behar bezala partekatzen al dugu? Zertan izan dezake eraginik nire semeak/alabak aisialdiaz disfrutatzerakoan?
- **Teknologia berriak** (Internet, kotsolak, mobilak..). Egokiak ala kaltegarriak dira gure seme-alabentzat? Ondo ala gehiegi erabiltzen dira?
- **Balioak irakasten**. Zer balio ari gara igortzen? Komunikabideek balioen igorpenean duten eragina. Galtzen ari al dira betiko balioak?
- **Hezkuntza afektibo-sexuala**. Zein adinetan hasi behar dugu sexuaz hizketan? Nola hitz egin sexuaz nire seme-alabekin, eta zein alderdiri buruz? Egokia al da gure seme-alabek hartzen dute hezkuntza sexuala?
- **Adimen emozionala**. Zer den. Zergatik den hain garrantzitsua. Gure seme-alabena nola areagotu.
- Nire semeak/alabak **gezur** asko esaten du. Zer egin nezake nik?
- **Aiton-amonen** eginkizuna seme-alaben hezkuntzan.
- Nire semea/alaba bere anaia/arrebaren **bekaitz** da.
- Nire semea/alaba oso **herabea** da.
- Nola hezi anaia-arreba **bikiak**? Gauza berezirik hartu behar al dugu kontuan?
- **Seme/alaba bakarra**: alde onak, alde txarrak eta hezkuntzan kontuan hartu beharreko alderdiak.
- **Diferentziak ulertuz**. Nire semea/alaba nola hezi sexu, arraza, itxura fisikoko diferentziak errespetatzen ikas dezan.
- Nire semearekin/alabarekin sor daitezkeen **gatazken konponketarako** urratsak.

- Nire semeak/alabak **beldurra** dio... Zer esan eta zer egin neska/mutilen beldurren aurrean.
- **Ikasketa ohiturak**, Nola lagunduko diot nire semeari/alabari ikasketetan?
- **Familiaren** garrantzia seme-alaben hezkuntzan. Familia motak eta eginkizuna.